

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Kuartangoko hiri antolamendurako plan orokorraren proiektuaren eranskina onestea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak jarritako baldintzak betetzeko

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 28ko ohiko osoko bilkuran, hau erabaki zuen:

Lehenengoa: Kuartangoko hiri antolamendurako plan orokorraren proiektuaren eranskina onestea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak jarritako baldintzak betetzeko. Hona hemen arrazoiak:

- S18 industria sektorea kentzea; hain zuzen ere, hori proposatu baitzen aurreko faseetan.
- Berriz ere aztertu dira Zuhatzu Kuartangoko SR-1 eta SR-2 egoitzatarako sektoreak, eta kendu egin dira, berriz ere doitzeko etxebizitza kopuruak lurraldearen antolamendu ildoetan ezarritakoari eta Zuhatzu Kuartangoko garapen jarraibideei.
- Berdegune berri bat eratzen da kendutako SR-1 sektorearen azaleraren zati batean.

Bigarrena: Eranskinaren agiriak jendaurrean jartzea hilabetez, dagokion iragarkia ALHAOn, egunkari salduenetako batean, udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzen denetik eta administrazio batzarrei jakinarazten zaienetik zenbatzen hasita, interesdun orok (erakundeak zein pertsonak) agiriok azter ditzan eta egoki deritzen alegazioak, iradokizunak eta aldaketak idatziz aurkez ditzan horretarako jarritako epean.

Zuhatzu Kuartango, 2018ko uztailaren 2a

Alkatea

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO GONZÁLEZ